

ABENDUAREN 1A

## "40 urtez GIBa ISILTASUNA=HERIOTZA izatetik, DETEKTAEZINA=TRANSMITIEZINA izatera"



Egun on guztioi. Beste urte batzuetan bezala, aurten ere dei egin dizuegu, elkarrekin oroitu eta ospatzera abenduaren 1a, "HIESaren aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna". Lehenengo eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu guztiei zuen konpromisoarengatik eta ekitaldi/elkarretaratze honetara etortzeagatik.

Hala kalean nola erakundeetan, erantzuna eman behar diogu GIBari eta hura ikusarazi, amaiera emateko desberdintasunei, hiesari eta pandemiei, ONUSIDAK aurten adierazten duen moduan, hiesaren lehen diagnostikoaren 40. urteurren honetan.

Pandemiaren berrogei urte hauen historia argi-ilunez beterik daude, eta ISILTASUNA=HERIOTZA lelo ospetsu hartatik igaro gara DETEKTAEZINA=TRANSMITIEZINA itxaropentsura.

Lau hamarkada horietan GIBarekiko erantzuna katalizatzaile bihurtu da eskubideak konkistatzeko hainbat kolektiborentzat — gutxiengo sexualak, emakume eta neskatoak, baztertuak, migratzaileak, prostitutak, askatasunaz gabeturikoak, drogen erabiltzaileak— osasunaren eta tratamenduen eskuragarritasun globalaren eskubidearekin batera. GIBarekiko erantzuna, hasieratik, giza eskubideen kontua izan da funtsean.

Berrogei urte hauetan gizarte zibila funtsezko eragilea izan da GIBari erantzuterakoan, beste kausa askorako eredu bihurtuta, jarduteko modu batekin non GIBarekin bizi garenok protagonistak eta aldaketaren motorra izan garen. Zoritxarrez, azken garai honetan ikusten ari gara diskurtso atzerakoi zahar batzuen itzulera, lortzeko hain neketsuak izan ziren eskubideen aurkakoak. Kezkaturik dakusagu ideologia matxista, homofobo, transfobo eta xenofoboaren gorakada; eta gizarte zibilaren aldetik adierazten dugu ez dugula atzerapauso bakar bat ere onartuko.

Berrogei urte hauetan GIBarekiko erantzunean egindako aurrerabidea ikaragarria izan da, aurrerapauso oso garrantzitsuekin.

Gure erkidegoan ongi kokatuta gaude ONUSIDAREN helburuetako biri dagokienez, tratamenduaren eskuragarritasuna bermatuta dagoelako eta tratamenduan dauden pertsonetatik % 91,8k birus-karga detektaezina dutelako, alegia, ezin dute birusa transmititu, detektaezina izateak transmitiezin dela esan nahi duelako. Hala ere, GIBa duten pertsonen % 84 diagnostikatuta egonda, urrutik gaude oraindik 2030erako % 95era iristetik, bizi-kalitateari buruzko laugarren % 95 horrekin eta diskriminazio ezaren helburuarekin gertatzen den bezala.

Osasun Publikoaren Institutuaren konklusioen arabera, pandemian zehar sexu-transmisiozko gaixotasunen eraginean jaitsiera izan ondoren, berriro ere igoera izan da pandemiaren aurreko mailaraino edo harago, hala GIBaren nola sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuen kasuan ere.

Horregatik, beharrezkoa da aurrera segitzea genero-perspektibadun prebentzio-estrategia ahaltzuekin:

Sexu-heziketa ardatz garrantzitsua izan da prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra hobetzeko, batez ere pertsona gazteenei dagokienez. Aurrerapen handia egin dugu ONUSIDaren 95-95-95 helburuak lortzeko, HIESari amaiera emateko 2030ean. 2019ko irailean Esposizio Aurreko Profilaxia prestazio gisa sartu zen Osasun Sistema Nazionalean. Aurrera doa ere GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu berdintasunaren aldeko Gizarte Itunaren garapena eta lortu dugu GIBa duten pertsonen funtzio publikoan sartzeko pairaturiko bazterkeria amaitzea.

Lorpen horiek guztiek gure kemena sendotzen dute administrazioekin batera lanean jarraitzeko gure helburuak lortze aldera. Baina horretarako oraindik ere behar dugu entzun diezagutela. Horregatik guztiagatik gaur, GIB/HIESaren Nazioarteko Egunaren ospakizunean, honako hau adierazten eta gogorarazten dugu:

- 40 urteko epidemiaren ondotik, ez dugu onartu behar krisiaren zama pertsona zaurgarrienengan erortzea. Horretarako, ezinbestekoa da gizarte-babeseko mekanismoak egituratzea, populazio horiei bermatzeko oinarrizko baliabideak eskuratu ahal izatea.
- 40 urteko epidemiaren ondotik, beharrezkoa da premia duten pertsona guztiei bermatzea GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuen diagnostikoa eskuratu ahal izatea. Diagnostiko goiztiarra eta tratamenduari goiz ekitea dira biderik onenak pertsonen osasuna babesteko eta kutsatzeak prebenitzeko.
- 40 urteko epidemiaren ondotik, ezinbestekoa da irabazitako lorpenak finkatzea eta GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu berdintasunaren aldeko Gizarte Itunak biltzen dituen neurriak bultzatzen jarraitzea.
- 40 urteko epidemiaren ondotik, beharra duten pertsona guztiei bermatu behar zaie Esposizio Aurreko Profilaxia eskuratu ahal izatea, eskurapen hori oztopatu gabe eta beren burua zaintzeko prebentzio-metodori egokiena horixe dutela erabaki duten pertsonak sailkatzen edo estigmatizatzen ibili gabe.
- 40 urteko epidemiaren ondotik, arreta soziosanitario banakatua bermatu behar zaie GIBdun diren pertsonen, kontuan hartuz haien berezitasunak, bereziki emakumeen eta adinduen kasuan.
- 40 urteko epidemiaren ondotik, ezinbestekoa da lidergo politikoa eta konpromiso ekonomikoa egotea, bermatze aldera GIBaren infekzioarekiko erantzuna eta haren iraunkortasuna. Alderdi politikotik eta giza baliabideen zein baliabide ekonomiko

aldetik indartu behar da programa autonomikoa, prebentzio, laguntza eta ikerketa politiken erakunde koordinatzaile gisa.

- 40 urteko epidemiaren ondotik, elkarreok erakutsi dugu ezinbestekoak garela GIBari erantzuteko ekintza jarraitu bat antolatzeko, biztanleria ahulei laguntza emanez, bestelako baliabiderik izan ez denean.

Ukaezina da gaurko krisi sanitarioak inpaktu ekonomiko eta sozial itzela izanzen duela mundu osoan datozen urteotan, baina COVID-19a desagertuko da eta GIBa gure artean geratuko da, sendabiderik eta txertorik gabe, hainbat urtetan. Horregatik gaur, inoiz baino +ago, guztion inplikazioa behar dugu atzerapausorik egon ez dadin GIBari eta HIESari toiki, nazio eta nazioarteko mailan eman beharreko erantzunean. Itxaropena edukita inoiz tresnak edukiko ditugula GIBetik aske dagoen belaunaldi bat lortzeko.

Gaur oso bereziki gogoan eduki nahi ditugu gurekin jada ez dauden aktibista horiek, zeinei zor baitiegu, gutxien-gutxienik ere, gure lan, laguntza eta ahaleginarekin GIBaren kontrolean aurrera egiten jarraitzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 1ean

Hiesaren Aurkako Nafarroako batzorde Hiritarra, Sare Elkartea, Abiatze ,  
Nafarroako Gazteariaren Kontseilua eta Kattalingorri elkarteak